


2023 AZA. 05
Jon Jimenez



LITERATURA

Biharamuna



Klikatuenak



Los nuevos murales de la colección de Baiona



La esgrima «para pobres» vasca



Darwin y las plantas



OnePlus Open



El Arrano Beltza, símbolo distinguido en el Palacio de Nafarroa

«Garai bakoitzak ditu bere bekatuak. Garaziren sasoian ere bekatuak sexuarekin du zerikusia. Garazi bekatari bat da. Ohe hori da paradisua, eta Mattin, sagarra»

Goiatz Labandibar Arbelaitz (Oiartzun, 1985) kazetaritzan lizentziadunak, komunikazioan eta gidoigintzan arituak, ez du denbora galdu eta, azken hamarkadan, hamaika obra plazaratu ditu hainbat generotan: narrazio labur bildumak (“Geltokiak edo helduta entzuteko abestiak”, “Fotogramak”, “Hori zen dena”, “Amez” eta “Hala bazan... klikk”), poesia (“Interpretazioak G minorrean”) eta baita haur literatura ere (“Hizkien alde. Manifestua”). “Bekatua” (Erein) du estreinako nobela, eta harekin irabazi zuen 2021ean Ramiro Pinilla eleberri laburren saria.

Bart ezagututako eta oraindik ezezaguna zaion Mattin gaztearen ohean esnatu da Garazi, istorio honetako protagonista. Han, bere mutil lagunaren, «bere Axiren», gorputzetik urrun, «bezperan edan zituen marrubizko tekila txupitoak bere sabelean nola» hala katramilatzen zaizkio pentsamenduak Garaziri. «Garai bakoitzak ditu bere bekatuak. Garaziren sasoian ere bekatuak sexuarekin du zerikusia. Garazi bekatari bat da. Ohe hori da paradisua, eta Mattin, sagarra».

Hogeita hamarnaka urte (izan) ditugun -eta egileak dituen- garai horretan sagar moduan gizartearen arbolan azaltzen zaizkigun dilema etiko eta sozialak jorratzen ditu bakarrizketa tragikomiko luze batean Goiatz Labandibarrek, noiz edo noiz hagitz ongi ekarri eta hautatutako literatura, arte, estatistika (bail) eta bertzelako erreferentzia pindarrez lagundurik. Oro har, Uxue Razkin editoreak xedatzen duen bezalaxe, estilo umoretsuz, jostariz eta makarraz eta, batez ere, «moralismoan erori gabe».

Norbait ezagutu baina nola jakin zein generok erakartzen zaituen gehien, txortan egin, gehiago ezagutu ala abandonatu, bikote formal hertsia bihurtu ala bertze harreman mota irekiago bat saiatu, autoa erosi eta zein dirurekin, etxea alokatu eta independente izan ala bikoteak hereditutako etxera bizitzera joan, biren arteko elkarbizitzaren legeak ezarri eta adiskide zein senideen harremanak mugatu, txakurra edo katua eduki («Bikoteen arrunkeria hori»), seme-alabarik izan ala ez («Ama. Drama. Zama») izan eta zenbat izan... Hiltzera zoazenean topikoki erraten den antzera, bizitza guzia, alegia, ordura arte hartu dituen eta hartu ez dituen erabaki guziak, pasatzen zaizkio Garaziri aurretik, azken judizio modura.

“Biharamuna” zuen izenburu hasiera batean lan honek eta, egia erran, biharamunaren hiru adierek ederki laburtzen dute: zerbaiten hurrengo egunean da Garazi -edo zerbaiten lehenengoan?- , ajez eta ondoezaz beterik -kezkaz-, eta zein etorkizun nahi eta merezi duen baino ez du buruan. Finean, hori baita bekatuaren eta “Bekatua”ren muina: noraino gara aske, aske bagara?

naiz:

Info

Euskal Herria
Ekonomia
Mundua
Naiz+
Bilbotarra
Donostiarra
Gasteiztarra
Iruindarra

Kirolak

Futbola
Saskibaloia
Eskubaloia
Pilota
Txirrindularitza
Arrauna
Motoak
Herri Kirolak
Errugbia

Iritzia

Editoriala
Zugazart
Artikuluak
Zuzendariari eskutitzak
Iritzi Blogak

Kultura

Bideoak
Argazki galeriak
Audioak

Eskelak
Denda
Eguraldia

Jaso gure newsletterra

Jakin beharreko albisteak besterik ez dizugu bidaliko. Spamik gabe.

Emaila

BIDALI

Webgune hau reCAPTCHA-k babestuta dago eta Google [Pribatutasun Politika](#) eta [Zerbitzu Baldintzak](#) aplikatzen dira.

irrattia ZUZENEAN